

ARIKETAK

1 HIZTEGI BATUA

1. a) Ranking horretan, dena den, Murua da garaile; eta arrazoiak emateko orduan, bere **boz** gozoa aipatzen dute gehienek, bere begirakuna beste batzuek, eta izakera gozoa gehienek.
b) Ranking horretan, dena den, Murua da garaile; eta arrazoiak emateko orduan, bere **abots** gozoa aipatzen dute gehienek, bere begirakuna beste batzuek, eta izakera gozoa gehienek.
c) Ranking horretan, dena den, Murua da garaile eta arrazoiak emateko orduan, bere **ahots** gozoa aipatzen dute gehienek, bere begirakuna beste batzuek, eta izakera gozoa gehienek.
2. a) Horregatik erdietsi zuen Orixek euskal idazleen eredu, maisu eta ezin-ukatzuko gidari izatearen ezagutza (ia) **ahobatezkoa**.
b) Horregatik erdietsi zuen Orixek euskal idazleen eredu, maisu eta ezin-ukatzuko gidari izatearen ezagutza (ia) **aho batezkoa**.
c) Horregatik erdietsi zuen Orixek euskal idazleen eredu, maisu eta ezin-ukatzuko gidari izatearen ezagutza (ia) **ahobatekoa**.
3. a) Gaur egun **airegarraioak** duen garrantzia handia bada ere, gure aireportua arras eskasa gelditzen da dauden premien aurrean.
b) Gaur egun **aireko garraioak** duen garrantzia handia bada ere, gure aireportua arras eskasa gelditzen da dauden premien aurrean.
c) Gaur egun **aire-garraioak** duen garrantzia handia bada ere, gure aireportua arras eskasa gelditzen da dauden premien aurrean.
4. a) Belarriaren **barrukaldea** zatirik edo parterik konplikatuena da, eta horrexegatik ematen zaio laberinto izena.
b) Belarriaren **barrualdea** zatirik edo parterik konplikatuena da, eta horrexegatik ematen zaio laberinto izena.
5. a) Sei **detenituak** Gobernu Zibilera eraman zituzten, eta, gaua han pasa ondoren, atzo goizean irten ziren kalera inolako kargurik gabe.
b) Sei **atxilotuak** Gobernu Zibilera eraman zituzten, eta, gaua han pasa ondoren, atzo goizean irten ziren kalera inolako kargurik gabe.
6. a) Espazioan lotuta egon behar du, eta bi elementuek (eskulturak eta **eraiकिनak**) osotasun bat lortu behar dute.
b) Espazioan lotuta egon behar du, eta bi elementuek (eskulturak eta **edifizioak**) osotasun bat lortu behar dute.
7. a) Errebindikazioak konbenioen bitartez egiten dira, hau da, **entrepresa** erraldoi horien eta sindikatu handi eta boteretsuen artean.
b) Errebindikazioak konbenioen bitartez egiten dira, hau da, **enpresa** erraldoi horien eta sindikatu handi eta boteretsuen artean.
8. a) Hemendik Encisora bitartean, eta baita Soria aldera pittin bat sartuta ere, antzinateko aztarna ugari gordetzen dituen eskualde bat dago, non dinosauroen oinatzak, landare **fosilduak**, eta beste hainbat testigantza agertzen diren.
b) Hemendik Encisora bitartean, eta baita Soria aldera pittin bat sartuta ere, antzinateko aztarna ugari gordetzen dituen eskualde bat dago, non dinosauroen oinatzak, landare **fosilizatuak**, eta beste hainbat testigantza agertzen diren.
9. a) **Gartzelan** igarotakoa ez dut sekula ahantziko, bertan ikasitakoa are gutxiago. 10 urte, 120 hilabete, 3.650 egun bisitarik izan gabe.
b) **Kartzelan** igarotakoa ez dut sekula ahantziko, bertan ikasitakoa are gutxiago. 10 urte, 120 hilabete, 3.650 egun bisitarik izan gabe.
10. a) Antigualean Inperio arrotz batek gure herria okupatu zuelarik, jendea errebelde altxatu zen **herriska** eta mendietan.
b) Antigualean Inperio arrotz batek gure herria okupatu zuelarik, jendea errebelde altxatu zen **herrixka** eta mendietan.
11. a) Hogeita bost **yarda** baino gehiago ez zuen hormen itzuli osoak.
b) Hogeita bost **iarda** baino gehiago ez zuen hormen itzuli osoak.
12. a) **Imagina** ezazu ogia irabazteko akordeoi tipia jotzen duen neskatala itsua.
b) **Imajina** ezazu ogia irabazteko akordeoi tipia jotzen duen neskatala itsua.

A R I K E T A K

13. a) Lanean aritu beharrik ez zuela eta, teoria berri bat asmatu zuen Pllonek altxor **izkutuei** buruz.
b) Lanean aritu beharrik ez zuela eta, teoria berri bat asmatu zuen Pllonek altxor **ezkutuei** buruz.
14. a) Antzerkia ez da literatur **jenero** bat bakarrik, aldi berean, espektakulo bat da.
b) Antzerkia ez da literatur **genero** bat bakarrik, aldi berean, espektakulo bat da.
15. a) Ondoren, zenbakia eta bola **kartoi mehe** batean itsatsi etxera eramateko.
b) Ondoren, zenbakia eta bola **kartulina** batean itsatsi etxera eramateko.
16. a) Horregatik, eduki gramatikaletan, gramatika tradizionalean ohiko diren elementuez gain, ez-ohiko eta "berri" diren batzuk ere sartu behar izan dira: *testua*, **testuingurua**, *deixia*, *antolatzaileak*...
b) Horregatik, eduki gramatikaletan, gramatika tradizionalean ohiko diren elementuez gain, ez-ohiko eta "berri" diren batzuk ere sartu behar izan dira: *testua*, **kontestua**, *deixia*, *antolatzaileak*...
17. a) Sasoi hartan zigorrak oso zorrotz eta latzak ziren, eta inor ez zen ausartzen **lapurketarik** salatzen.
b) Sasoi hartan zigorrak oso zorrotz eta latzak ziren, eta inor ez zen ausartzen **lapurretarik** salatzen.
18. a) **Paragrafo** honetan esandakoek elementalak eta nabarmenak dirudite, baina gure hizkuntzaren kasuan sarritan sakrifikatzen dira beste gauza batzuren izenean.
b) **Parrafo** honetan esandakoek elementalak eta nabarmenak dirudite, baina gure hizkuntzaren kasuan sarritan sakrifikatzen dira beste gauza batzuren izenean.
19. a) Eta batzorde-atal bereziek Hizkuntza Politikarako sailburuordeak aukeratutako Hizkuntza Politikarako **Sailordetzako** funtzionario baten edo gehiagoren laguntza izango dute.
b) Eta batzorde-atal bereziek Hizkuntza Politikarako sailburuordeak aukeratutako Hizkuntza Politikarako **Sailburuordetzako** funtzionario baten edo gehiagoren laguntza izango dute.
20. a) Haurrak hitz bakoitzaren ondoan ikusiko du zer zer den: **sustantiboa**, adjektiboa, adberbioa, adlitz, etab.
b) Haurrak hitz bakoitzaren ondoan ikusiko du zer zer den: **sustantiboa**, adjektiboa, adberbioa, adlitz, etab.



ZUZENA EDO EGOKIENA AUKERATU, EUSKALTZAINDIAK EMANDAKO ARAUAK ETA GOMENDIOAK KONTUAN HARTUTA

1. a) Neure burua **ukatu behar naiz**, neure buruaren jabe izango baldin banaiz.
b) Neure burua **ukatu behar dut**, neure buruaren jabe izango baldin banaiz.
2. a) Isilik **egon behar dut** begibistako horren aurrean.
b) Isilik **egon behar naiz** begibistako horren aurrean.
3. a) Gaur Elkartean **afaldu behar dugu**.
b) Gaur Elkartean **afaldu behar gara**.
4. a) Hemen **ezagutu behar dut** zer den kartzela.
b) Hemen **ezagutu behar naiz** zer den kartzela.
5. a) Gure tren **jendea eta poltsaz** beterik doa.
b) Gure tren **jendez eta poltsaz** beterik doa.
c) Gure tren **jende eta poltsaz** beterik doa.
6. a) Aurrerago, **landarea eta bananondoan artean**, txoza pobreak zeuden.
b) Aurrerago, **landareen eta bananondoan artean**, txoza pobreak zeuden.
c) Aurrerago, **landare eta bananondoan artean**, txoza pobreak zeuden.
7. a) **Anaia nagusia eta Edurnek** kanposantura joan behar zuten loreak eramatera.
b) **Anaia nagusiak eta Edurnek** kanposantura joan behar zuten loreak eramatera.
8. a) Hain erkindurik dago, non zangoek ez dioten eusten zutik.
b) Hain erkindurik dago, zangoek ez diotela eusten zutik.
c) Zangoek ez diote eusten zutik, hain dago erkindurik.
9. a) Hain astunak dira, ezen garraiatzeko modurik ere ez dagoela.
b) Hain astunak dira, ezen garraiatzeko modurik ere ez baitago.
c) Garraiatzeko modurik ere ez dago, hain dira astunak.

ARIKETAK

10. a) Hain ustekabeen harrapatu dut, non erantzuteko betarik gabe utzi baitut.
b) Hain ustekabeen harrapatu dut, non erantzuteko betarik gabe utzi dut.
c) Erantzuteko betarik gabe utzi dut, hain ustekabeen harrapatu dut.
11. a) Mendebaldera **joango naizenean**, lur-sail hutsen bat hartuko dut.
b) Mendebaldera **joaten naizenean**, lur-sail hutsen bat hartuko dut.
12. a) Fusil tiroen **ihesi ibiliko denean** gogoratuko zaizkio hemengo egonaldiak.
b) Fusil tiroen **ihesi ibiltzen denean** gogoratuko zaizkio hemengo egonaldiak.
c) Fusil tiroen **ihesi dabilenean** gogoratuko zaizkio hemengo egonaldiak.
13. a) Galdetzea atrebentzia ez bada, esango didazu **zenbatetan** erosi duzun kotxe hori?
b) Galdetzea atrebentzia ez bada, esango didazu **zenbatean** erosi duzun kotxe hori?
14. a) Dolar guztiak **euroetan** aldatu ditu.
b) Dolar guztiak **eurotan** aldatu ditu.
15. a) 100 **eurora** igo dute salneurria hilabete honetan.
b) 100 **euroetara** igo dute salneurria hilabete honetan.
16. a) Ardo hori 3 **eurotan** zegoen atzo.
b) Ardo hori 3 **euroan** zegoen atzo.
c) Ardo hori 3 **euroetan** zegoen atzo.



ARIKETA

Hona hemen antzerki saio batera joateko gonbita, saia zaitetz argiago eta erakargarriago jartzen:

Honen bidez, atsegin handiz, udal aretoan maiztaren 1ean, iluntzeko zazpietan, Langileen eguna ospatzeko Getxoko Antzerki tallerrekoek taularatuko duten antzerki emanaldira gonbidatu nahi zaitut. Antzezlanean izena *Oporrak, oporrak, oporrak* izango da.

Antzezlana elkarrekin ikusiko dugulakoan, agur bero bat.

Odei Argiarena
Santurtziko Kultur zinegotzia

Santurtzi, 2004ko apirilaren 22a

SOLUZIOAK

1 HIZTEGI BATUA

- | | |
|---------|-------|
| 1. a, c | 11. a |
| 2. a | 12. b |
| 3. b | 13. b |
| 4. b | 14. b |
| 5. b | 15. a |
| 6. a | 16. a |
| 7. b | 17. b |
| 8. a | 18. a |
| 9. b | 19. b |
| 10. b | 20. b |

2 GRAMATIKA

- | | |
|-----------------------|-------------|
| 1. b | 10. a, b, c |
| 2. a, b | 11. b |
| 3. a, b (Iparraldean) | 12. b, c |
| 4. a | 13. b |
| 5. b, c | 14. b |
| 6. b, c | 15. a |
| 7. b | 16. a, b |
| 8. a, c | |
| 9. b, c | |

3 ARIKETA

GONBITA



Oporrak, oporrak, oporrak antzezlana



Atsegin handiz gonbidatu nahi zaitut langileon eguna ospatzeko antolatu dugun antzerki emanaldi honetara. Getxoko Antzerti tailerrekoak izango ditugu antzezle.

Eguna: maiatzaren 1a

Ordua: iluntzeko 7ak

Tokia: udal aretoa

Antzezlana elkarrekin ikusiko dugulakoan, agur bero bat.

ODEI ARGIARENA

Santurtziko Kultur zinegotzia

Santurtzi, 2004ko apirilaren 22a